

JARDUEREN MEMORIA DONOSTIA WEEKINN 2020



VII
DONOSTIAKO
BERRIKUNTZAREN ASTEA
SEMANA DE LA INNOVACIÓN
DE SAN SEBASTIÁN

Urriak **24-30** Octubre



www.donostiainn.eus

Laguntzailea:
Con el apoyo de:



Diputación Foral de Álava
Euzko Legearen Arpean

Antolatzaileak:
Organizar:



DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN
Ekonomia Bultzatzeko Zinegotzigoa
Concejalía de Impulso Económico

donostiasustapena
fomentosansebastián

Donostia San Sebastián
Ekonomia Bultzatzeko Zinegotzigoa
Concejalía de Impulso Económico

Donostia WeekINN ekimenak Superaldaketak izango ditu gai nagusi astea osatzeko, eta pertsonak, teknologia eta lankidetzak nabarmenduko dira.

Donostia WeekINN Berrikuntzaren Asteak hazten jarraitzen du: 4.300 parte-hartzaile baino gehiago, 50 laguntzaile, Estatuko eta nazioarteko lehen mailako hizlariak, 25 jarduera baino gehiago eta hiru kanaleko formatua ditu.

Donostia WeekINN Berrikuntzaren Astea Donostia Sustapenaren ekimen bat da eta 2020an VII. edizioa egingo da. Helburu hauek ditu:

- Berrikuntzen garrantziaren inguruan **sentikortzea**.
- **Prestakuntza ematea** eta ezagutzak hurbiltzea, partekatzea, ikastea, etab.
- Berrikuntzara begira dauden mota guztietako eragileak hauteman eta **agerian jartzea**.

Donostia WeekINN ekimenaren edizio honetako mezua **Superaldaketak** izan dira, ulertuta Superaldaketa kontzeptua dela gure mundua erabat aldatzen duen ustekabeko gertakari bat, ezinezkoa edo absurdoa dirudien arren.

Bizitzen ari garen Superaldaketatik abiatuta eta gure joko-taula den hiri honetara mugatuta, topaketarako gune bat proposatzen dugu, zeinetan edozein eraldaketari aurre egiteko funtsezkoak diren 3 elementu jorratuko ditugun:

- **Pertsonak:** berrikuntza sortu eta teknologiarantz zentzua eta erabilgarritasuna ematen dioten eragile moduan.
- **Teknologia:** gizateriaren aurrerabiderako funtsezko tresna moduan.
- **Lankidetzak:** aldatetako eta erronka handiko testuinguruei taldean aurre egiteko.

Donostia Week INN 2020 ekimenak ere bere bilakaera izan du; hala, hiru kanaleko programazioa eta On/Off formatu malgua ditu orain.

Formatuak:

1. **ONLINE.** Teknologian oinarrituta, atea zabalduko diogu ezagutzari, adituekin hitzaldiak eginez, eztabaiden bidez eta sarean jarduerak gauzatu.
2. **KALEA.** Ezagutza eta erronkak kalera eramango ditugu, modu seguruan betiere, onlineko baliabideekin lotutako gymkhanen eta erakusketen bidez.
3. **TOPAKETAK.** Harremanak egin eta ikasteko gure gune seguru, atsegin eta hurbilekoak izango dira.

Zer da Donostia WeekINN?

Donostia WeekINN Berrikuntzaren Astea esparru bat da, zeinaren bidez Donostia Sustapenak **Berrikuntzaren** alde egindako apustua sustatu eta agerian jarri nahi duen, eraldaketaren eroale, jarrera eta Donostiako hiriaren berezko printzipio moduan, **talentuan** oinarritutako eredu bat bultzatu nahi baitu.

Puntu honetan, ezinbestekoa da **gizartekoitu** eta herritarrengana hurbiltzea, ekosistema ikusgai jartzea eta **loturak** sortzea, hizkuntza eta formatu berriak erabiliz.

Laneko ikuspegi horretatik abiatuta, Berrikuntzaren 7. asteak hauekiko lotura bilatzen du:

- **Herritarrak**, gure hirian enpresen eta proiektu berritzaileen bidez, ikerkuntzako eta teknologiko zentroetan eta askotariko eremuetako beste erakunde batzuetan garatzen den berrikuntza hurbiltzeko.
- **Enpresak eta profesionalak**, haiei ideia berritzaileak emateko eta haien arteko **elkarrekintzako** foroak sortzeko.
- **Heziketa-zentroak** (ikastetxeak, lanbide-heziketako zentroak eta unibertsitateak), berrikuntzarekin eta beste zeharkako trebetasun batzuekin lotutako gaitasunak **trebatzeko garrantzia** lantzeko gure talenturik gazteenarekin, bai eta gazteok gure enpresa-ekosistema berritzaileara, I+G+B eragileetara eta aurrez aurre ditugun erroka eta teknologia berrietara hurbiltzeko ere.

Beraz, berrikuntzaren arloko eragile protagonistek hirian urte guztian zehar egin duten ahaleginaren eta lanaren hedapen bat da; halaber, urteko garai honetan, iraupen luzeko zenbait programen jarduerak (Donostia Innovation Challenge, enpresekin egindako tailerrak, hitzaldiak, etab.) WeekINN honetan integratzen dira.

Donostia WeekINN 2020

COVID-19aren pandemiak inoiz bizi izan dugun inflexio-punturik handiengan kokatu gaitu, seguruenik. Horregatik, urriaren 24tik 30era gauzatu zen Donostia WeekINN 2020 ekitaldiak gogoeta egiten lagundu zigun aurre dugun Superaldaketaren hiru faktore nagusiei buruz: pertsonak, teknologia eta lankidetzak.

Pertsonak, berrikuntza sortu eta teknologiarantz zentzua eta erabilgarritasuna ematen dioten eragile moduan. Teknologia, gizateriaren aurrerabiderako funtsezko tresna moduan. Eta lankidetzak, aldaketako eta erronka handiko testuinguruei taldean aurre egiteko.

Zergatik erabaki dugu super aldaketak gai nagusi izatea? Gizateriaren historian, askotariko aldaketak edo Superaldaketak egon dira eta, horiei esker, mundua eta berorren egitura gaur ulertzen dugun moduan ulertzera heldu gara. Gainera, Superaldaketa hitza diseinu-prozesuetan erabiltzen da eta etorkizunen diseinuaren barruko azterketa prospektiboari egiten dio erreferentzia.

Gaur egungo testuinguruak maila guztietan baldintzatzen gaitu, Berrikuntzaren astea ere baldintzatu du. Gizateriaren historian Superaldaketei aurre egiteko orduan behin eta berriz agertzen diren zenbait elementu kritiko eta funtsezkoen inguruan planteatzen dugu testuinguru hori.

Horregatik, gune bat sortu dugu, zertarako eta gizarte moduan eta bereziki hirietan aurrez aurre ditugun erronkekin eta superaldaketeekin datozen erronka espezifiko eta zeharkakoak ezagutzeko eta horiei buruz hausnartu eta eztabaidatzeko.

Urtearen erdiko puntua igaro ondoren, une egokia da pertsonak pertsonentzat lortu nahi dugun etorkizuna eraikitzean dugun ziurgabetasun-egoera honi buruz hausnartu, ikasi eta aurrera egiteko.

Donostia WeekINN 2020 ekimenak, berriz ere, gune bat eskaini zuen hausnartzeko, inspiratzeko, ikasteko, esperimendatzeko, partekatze, lankidetzan eta elkarrekintzan aritzeko eta, azken batean, berrikuntzarako.

Gainera, Berrikuntzaren Astearen enpresa-berrikuntzarako DonostiaINN sariak eman dira. Bosgarren edizio honetan, hiriko enpresek arlo horretan egiten duten ahalegina saritzeko asmoa du oraindik ere, eta bi kategoria saritzen ditu: enpresa finkatua eta enpresa gaztea. Lehenengo kategorian, Bunt Planet enpresak lortu du saria. Bigarrenengan, berriz, Viralgen enpresak. Gainera, DIPC zentroaren ibilbidea eta inpaktua ere saritu zen.

Gipuzkoako Foru Aldundiaren babesari eta berrogeita hamar eragile baino gehiagoren laguntzari esker, 2020ko Berrikuntzaren Astea egin ahal izan dugu.

Donostia WeekINN Berrikuntzaren Astearen zortzigarren edizioa prestatzeko atzerako kontaketa hasi da. Ekitaldi hori hiriko erreferente bihurtzen ari da Donostiako berrikuntzaren eta talentuaren aldeko apusturako lankidetzak eta ikusgarritasuna sustatzeko.

Urriaren 24 eta 25eko asteburua | Donostia Week INN 2020

Donostia Sustapenak antolatutako Berrikuntzaren Astea asteburuan hasi zen publiko guztientzako jarduerekin eta hirian girotutako bi jarduera izar izan zituen: gymkhana eta Donostia Escape Web.

Donostia: berrikuntzaren historia bat izeneko aste osoko **gymkhanak** aukera eman digu Donostiako historia markatu duten faktore eta mugarrri nagusiak ezagutzeko. Parte-hartzaileek hiriko funtsezko 6 tokitan zehar ibili eta zenbait erronka ebatzi behar izan zituzten, baita Errealitate Areagotuaren teknologia ezagutzen hasi ere. Gainera, modu presentzialean egiteaz gain, jolasaren onlineko bertsioan parte hartzeko aukera zegoen. Zozketa bat ere egin genuen eta hainbat sari eman genituen, esaterako, Aquariumerako edo Perlarako sarrerak, baita Fnac dendarako bonuak ere, prozesua modu presentzialean osatu zuten parte-hartzaile guztientzat.

Programatutako beste jarduera birtual bat **Donostia WeekINN Escape Web** deiturikoa izan zen. Jardueran, parte-hartzaileak misio bat zuten: Donostiako iragan historikoan harrapatuta geratu zen etorkizuneko bisitari bati laguntzea. Denboran atzera egin behar zen denboraren makina martxan jartzeko falta ziren osagaiak berreskuratzeko. Hiriaren iragan historikoa argazkiz dokumentatzen ari zen denboran zeharreko bidaiari batek galdu zituen osagaiok.



Gainera, bi **erakusketa** egin genituen:

- 1) Lehenengoa Fnac Donostia dendan; 20 koadroko erakusketa bat, 44 emakume zientzialari bikainen aurkikuntzak ezagutzeko. Emakumeok beren ikerketa, asmakuntza eta aurkikuntzei esker nabarmendu ziren historian zehar eta, oraindik

ere, haietako asko ezezagunak dira publiko orokorrarentzat. Erakusketa euskaraz, gaztelaniaz eta ingelesez izan zen.

- 2) Bigarren erakusketa Egiako tunelean izan zen. Mugimendu ugari toki horretan, Donostia WeekINN 2020 ekitaldiaren omenez egindako eduki esklusiboak erakutsi ziren. Honako hauek aurkitu ahal ziren bertan: ekitaldiaren helburu nagusiak, VII. edizio honen gaia, jarduera nabarmenenak eta programazio osoa QR kode batzuen bidez ikusteko aukera.



Urriak 26, astelehena | Donostia Week INN 2020

Astelehenean WeekINN TV estreinatu zen. Telebista-kate berri horretan, Berrikuntzaren Astearen berri eman da Donostia Sustapenaren YouTubeko kanalaren bidez, eta luxuzko gonbidatuak izan ditugu. Talent Housen plato bat eraiki genuen eta Donostia WeekINN 2020 ekitaldiaren irudi gisa erabili genuen. Horretan, WeekINN TV telebista-kateko eduki guztiak ekoitzi ziren, Xabi Pérez aurkezlearen gidaritzapean.



«Etorkizunerako gaitasun pertsonalak» saioan, Humanova taldeko zuzendari **Alicia Pomaresek** hurrengo urteei begira profesionalak garatu beharko dituzten gaitasunak azaldu zituen. Horrez gain, adierazi zuen bizitzen ari garen Superaldaketak premia hori areagotu zuela. *Lehenengo learnability edo etengabe ikasteko jakin-mina, Superaldaketetara egokitzeko gaitasuna, malgutasuna eta oso erresilientek izatea.*

Ordu batzuk geroago, Social Data enpresako zuzendari **Ana Aldeak** ere Xabi Pérezek zuzendutako programan hartu zuen parte. Gazteen artean zabaltzen ari diren **harremanetarako modu birtual berriak** aztertu zituen. Adibidez, Forniteko kontzertuak edo YouTubean agertzen direnekin komunikatzeko moduak, Twitter eta antzeko plataformen bidez.

Aldeak hausnarketa esanguratsu honekin amaitu zuen: «*Sare sozialak gure artean geratuko dira. Pandemiarekin bizi izan dugun erabateko digitalizazioa ez da aldatuko, baina luze eta zabal hitz egin dugu eta ondorioztatu dugu gu garela geure bizitzaren jabeak eta teknologia pertsonentzat erabili behar dugula, ez alderantziz.*».



Bestalde, Deustuko Unibertsitateko Ingeniaritzako Fakultateko Kanpo Harremanen eta Etengabeko Prestakuntzaren dekanorde **Alex Rayónek** onlineko mintegi bat egin zuen.

Kontaktu gutxiko ekonomiak berekin dakartzan erronkei eta aukerei buruz hitz egin zuen eta adierazi zuen negozio-eredu hori nabarmen zabaldu dela pandemiaren ondorioz: *COVID-19aren ondorengo garaiko ekonomia ohitura eta araudi berriz osatuta egongo da, elkarrekintzetan hurbileko kontaktua murriztean oinarrituta, eta horrek eragina izango du antolamenduan eta bezeroekiko harremanetan.*

Hezkuntzaren arloan, WeekINN ekimena ikastetxeetara ere heldu zen. **Donostia Innovation Challenge** ekimenaren esparruan, 13 zentrotako 370 ikasleek burua astindu eta askotariko jarrera-gaitasunak lantzeko aukera izan zuten, *escape* motako joko birtual baten bidez. Gainera, zenbait ikastetxetako Lehen Hezkuntzako 6. mailako 180 ikaslek **Donostia Minecraft Challenge** proiektuan hartu zuten parte. Programatzen ikasteko saio bat zen, zeinetan Santa Klara uhartean aurkitutako erronkak gainditu behar ziren, uhartea birsortzen duen bideo-joko hezitzaile horretan.

Ikasleek logikako jokoak ebatzi eta igarobide sekretuak aurkitu behar zituzten mapan aurrera egin eta kutxa batzuk desblokeatzeko, amaierako eraikuntza amaitu, misioa bete eta uhartetik hirirako bidea hartze aldera.



Urriak 27, asteartea | Donostia Week INN 2020 VI. jardunaldia

Laugarren eguna hasteko, WeekINN TV kanalaren emanaldira itzuli ginen, Adimen Artifizialaz eta ekitaldien etorkizunaz hitz egiteko.

Hiriak: teknologia eta datuak hitzaldia eman zuen Núria Oliverrek. Estatuko Telekomunikazioko Ingeniariaren saridunak zera adierazi zuen: *«adimen artifiziala bizitzen ari garen laugarren industria-iraultzaren muinean dago eta mundu fisikoaren eta digitalaren arteko aurrekaririk gabeko hurbileko harreman bat dakar berekin»*. Adimen artifizialeko algoritmoek gero eta sarriago lagunduko digute arlo askotan: esaterako, osasun-arloko diagnostikoak egiten, epaileei epai judizialak ematen, pertsona bati lana eskainiko zaion ala ez jakiten edo unibertsitatean onartuko den ala ez erabakitzen. Zalantzarik gabe, pertsonetan eragin handia duten erabakiak dira; horregatik, Núria Oliverren ustez Adimen Artifizialeko estrategia bat egin behar da algoritmoen zehiartasunak, egiazkotasun-falta eta iluntasunaren moduko mugei aurre egiteko.



Horrez gain, Real Sociedad taldeak eta Donostiak, Donostia Sustapenaren bidez, Berrikuntzaren VII. Astearen esparruan, elkarrekin erronka bat botatzeko Realaren arimaren zati eta eragile diren pertsoneri, berrikuntzarako eta sormena eta talde-lana garatzeko programa baten bidez, ilusio edo proiektu bat eraikitzen jarraitzeko, zeina Realak bihotzean daramaten donostiar eta gipuzkoar guztien etxe izango den.

Hala, Realak **Real Sociedad Challenge** erronka proposatu zien bere jarraitzaile gazteei. Erronka horretan, 14 eta 18 urte arteko gazteek hartuko dute parte, klubaren instalazioen barruko gune berriak pentsatzen eta diseinatzen, futbolaren emozioa eta esperientzia partidaren 90 minutuez harago zabaldu dadin.



Ekitaldi handien etorkizuna izan zen jardunaldiaren gai nagusietako bat; Vocento taldeko negozio berrien zuzendari Iñigo Ibarregarayk, Zinemaldiko hautaketa-batzordeko kide Joxean Fernándezek, Get IN enpresako zuzendari Iñigo Argomaizek eta Real Sociadateko marketineko eta salmentetako zuzendari Begoña Larzabalek topaketen esparruari buruz hausnartu zuten, egiten jarraitu ahal izateko berriz pentsatu behar baitira.

Bestalde, ostalaritzaren sektoreko zenbait profesionalak ostalaritza **datozen urteetan bideratuko duten hiru joera izan zituzten hizpide**: jasangarritasuna, digitalizazioa eta *branding* delakoa. Horretarako, lehen mailako hizlariak izan genituen: José María Sen eta Cristina Calvo, K&Co enpresako gerenteak eta Pilar Domínguez eta Eva Ballarón, Mandarin Brand Society enpresako sortzaile eta sorkuntzako eta estrategiako zuzendariak, besteak beste.

**EL RESTAURANTE POST-COVID:
ALGUNAS CLAVES PARA SU ÉXITO**

27 de octubre 2020, 10:00h-12:00h via Zoom



CRISTINA CALVO
Gerente de K&Co

PILAR DOMÍNGUEZ
Cofundadora de
Mandarin Brand Society

EVA BALLARÓN
Investigadora y divulgadora



Astearte horretan bertan, hilaren 27an, **surfaren industriari** buruzko webinarra egin zen. Single Quiver enpresaren gerente Unai Garciaren eskutik, surfeko produktuak Internet bidez saltzearen erronka eta aukerei buruz hitz egin zen eta hedabide espezializatuetan eta produktuak dibulgaziozko ikuspegi batetik merkaturatzean sakondu zen.

Urriak 28, asteazkena | Donostia Week INN 2020

Donostia WeekINN 2020 ekimenaren bosgarren eguna guztietan nazioartekoena izan zen.

Wired aldizkariak Estonia «munduko gizarte digitalik aurreratuen» izendatu zuen. Florian Marcusek zenbait urte daramatza estrategia hori lantzen eta horren jatorria azaldu zigun: «*batzuetan, egoera zail bat behar dugu Superaldaketara hurbiltzera bultzatu gaitzan*». Sobietar Batasunetik independizatu ondoren, Estoniak gobernuaren eta herritarren arteko elkarrekintza-sistema berregituratu behar izan zuen. Hala sortu zen **E-estonia**, herrialde horretako izapide ofizialen % 99 online egitea ahalbidetu duen eraldaketa digitaleko estrategia.

Gaur egun, adibidez, Adimen Artifizialaren garapena bizkortzeko esparru juridiko eta estrategiko bat sortzen ari dira, Estonia arlo horretan aitzindari bihurtzeko.



Bestalde, **Román Arjonak eta Julio Lumbres**ek, Europako Batzordearen eta Europar Batasunaren ordezkari gisa, hurrenez hurren, Europak hurrengo hamarkadan aurrez aurre izango dituen erronkei buruz hausnartu zuten.

Europar Batasunak eraldaketa digitalean, ekonomia berdean eta gizarte-kohesioan aurrera egiteko lantzen dituen estrategien artean, Lumbresek misio zehatz bat aipatu zuen: *Europar klimatikoki neutralak diren eta herritarrek erdigunean jartzen dituzten 100 hiri egon daitezke 2030a baino lehen.*

Román Arjonak azaldu zuen pandemiagatik eta klima-aldaketaren eta herritarren zahartzearen moduko gizarte-erronkagatik sortutako Superaldaketak zenbait aukera ekarri dituela: «*horrek zenbait funtsezko aukera ekarri ditu hirientzat eta I+Gko eta berrikuntzako sistema aurreratu bat duten lurraldeentzat, hots, Euskadientzat eta Donostiarentzat; izan ere, oso toki onean gera daitezke gaur egungo trantsizio berde eta digitaletan aurrera egiteko*».

Bestalde, mahai-inguru batean, digitalizazioa hala guzti publiko nola pribatuen osieran eragiten ari den inpaktua jorratu zen. Donostia Sustapeneko gerente **Euken Sesék, Xabier Barrutieta** arkitektoak eta Habic klusterreko kide **Xabier Pérez de Arenazak** adierazi zuten beharrezkoa zela **hirien diseinua** birpentsatzea, herritarrek dagoeneko badituzten erabilera eta premia berrietara egokitzeko.

Hainbat urtez aztertu eta landu dira gaiok, eta gaur egungo pandemiaren eraginez, eztabaida hori beste diziplina askorekin partekatu da; aldi berean, esanahi berriak eman zaizkie etxebizitzari, bulegoei, mugikortasunari eta aisialdiko eta merkataritzako guneei.



Bestalde, COVID-19 gaixotasunak ere digitalizazio-prozesua bizkortu du nekazaritzako elikagaien sektorean; aldaketa horrek zenbait abantaila ekarri ditu, zeinak **Jorge García de Opazo** ingeniari agronomoak zuzendutako webinar batean aztertu ziren. Abantailok dira, besteak beste, erosketara hobetzea eta klima-aldaketaren ondorioak arintzea, eta hori guztia onuragarria izango da sektorearentzat, lehiakortasunaren arloan.

Gainera, Donostiako ingurunean zenbait ikerketa-zentrotan lan egiten duten bost **emakume zientzialari** Aquariumean elkartu ziren egiten ari diren ikerketez hitz egiteko eta **historiako emakume zientzialari handienetako batzuei** omenaldia egiteko. Iragana eta oraina elkartu ziren gaur egungo eta iraganeko emakume zientzialariak aldarrikatzeko eta halakoak beti egongo diren etorkizun bat eraikitzeko.

Hauek izan ziren gaueko protagonistak: Clara García Astrain & Rosalind Franklin, Joanna López & Rita Levi-Montalcini, Naiara Rodríguez & Constance Tipper, Sara Barja & Mildred Dresselhaus, Silvia Bonoli & Vera Rubin.




Asteazkeneko saioan, EHUK eta Deustuko Unibertsitateak ere parte hartu zuten. Deustuko Unibertsitateko Turismo Graduko 4. mailako ikasleek eta EHUko Enpresen Administrazio eta Zuzendaritzako Gradukoak hiriaren etorkizuna irudikatu zuten sormenez, erantzukizunez eta baikortasunez. Diziplina anitzeko zenbait taldek **2050eko Donostiarentzako** konponbide berritzaile eta jasangarriak diseinatu zituzten, Desing Thinking eta Future Thinking metodologiaren bidez.

Erronkak Garapen Jasangarriko bi helburu hauek zituen erdigunean:

- 6. GJH: ur garbia eta saneamendua.
- 11. GJH: hiri eta komunitate jasangarriak.

«Donostia 2050: lortu nahi dugun hiria diseinatu» ariketatik, honako titular hauek atera ziren, besteak beste: «Gola angelutik klima-aldaketari», «Edatekoa ez den uraren bidezko mugikortasuna errealitate bat da», «Kontxa, Europako hondartzarik kutsatuena», «Donostiak turisten ur-kontsumoa mugatu du», «Ur gardenak eta ametsezko hondartzak dituen Donostia», etab.



Azkenik, **TX topaketa** deritzon ekimenean, Donostian bizi diren zenbait atzerritarrek eta atzerrian bizi diren zenbait donostiarrek mahai-inguru batean parte hartu zuten, eta adierazi zuten garapenerako gakoak hauek direla: talentua erakartzea eta nazioarteko aitortpena bilatzea zientziaren eta berrikuntzaren hiri modura.

Topaketa hori eztabaida bihurtu genuen, esperientziak eta ikuspegiak partekatzeko, hala WeekINNen nola gure hiriaren funtsezko elementuen inguruan: pertsonak, teknologia eta lankidetzak. Beste gai batzuk ere landu genituen, esaterako, talentua eta berrikuntza.



Urriak 29, osteguna | Donostia Week INN 2020

Hilaren 29an (osteguna), goizean, Donostiako Sustapenak onlineko lansaiotzat antolatu zuen tokiko merkataritzako eta ostalaritzako ordezkariekin, bai eta zerbitzu digitalen hornitzaileekin ere, Sustapenak Europako **DEVISE** (Interreg Europe-EU) proiektuaren esparruan prestatu duen **Ekintza Planeko** neurriak aztertu eta kontrastatzeko; neurri horien helburua da tokiko merkataritza eta ostalaritza eraldatu eta lan egiteko modu eta negozio-eredu berrietara egokitzea.

Elkarrizketa **ekintza** hauen inguruan izan zen: sentikortze eta prestakuntza digitaleko programa bat, aholkularitza teknologikoko programa bat eta konponbide eta aplikazio digitalak ezartzeko dirulaguntzen programa bat.



Parte-hartzaileen ustez, oso garrantzitsuak dira tokiko sektore ekonomikoaren jardura ekonomikoa eta eraldaketa digitaleko prozesuak sustatzeko eta, nahiz eta hurrengo urte osoan zehar COVID-19aren pandemiak eragindako egoerari aurre egiteko laguntza eman beharko den, ekintzok tokiko testuinguruko benetako premia eta arazoei erantzuten diete.

Eguerdian, Europako berrikuntzako eta teknologiako institutuaren zuzendari ohi **José Manuel Lacetarekin** egon ginen eta bere tesia azaldu zigun: berrikuntza fraktala. Fraktalak dira naturan dauden objektu matematiko batzuk, zeinak konplexutasuna modu erraz batean deskribatzen duten; Lecetaren arabera, haiei buruzko teoriak egitura fraktalen eta gizartearen arteko harremanen paralelismoak jorratzen ditu.


«Adibidez, garoa fraktal bat da, landarea ikusten den arren adar bat dirudielako. Adarra ikusi eta hosto bat dirudi. Erregularitasun hori aurkitzen dut hiru maila hauetan: taldeak, erakundeak eta komunitateak».

Lecetak adierazi zuen berrikuntza jendearen aldeko apustua egitea dela. *«Berrikuntzaren eta ekintzailetzaren dinamikak ezagutzeko jakin-mina duenak mundua pixka bat hobeto ulertuko du».*

Bestalde, urteroko **euskarabildua** topaketa egin genuen, San Telmon, atea itxita. Ekimenaren helburua da euskal gizartearen euskararekin lotzea. Aurten, gure datuen pribatutasunean pandemiak izan duen eragina izan da ikerketa-objektua.



Egun trinko horrekin amaitzeko, **Opinnoren** eskutik, establezimendu komertzialentzako saio bat antolatu genuen, gaur egungo egoera argitu eta digitalizazioan sakontzeko. Saio horretan, hizpide izan zen paradigma berri honetan bezeroak nola ezagutu eta haiekin nola komunikatu gaitzkeen, teknologiari eta omnikanalitateari esker esperientzia holistikoak eskainiz.



Urriak 30, ostirala | Donostia Week INN 2020

Berrikuntzaren astea ostiralean amaitu zen Donostia INN sarien banaketarekin. Horien bidez, gure hiriko puntako enpresa berritzaileak saritzen dira.

Enpresa gazte berritzailearentzako saria Viralgen enpresak jaso zuen. Konpainia 2017an sortu zen eta terapia genikoaren arloan egiten du lan.

Javier García zuzendari duela, enpresak osasunaren eta bioteknologiaren aldeko apustu irmoa egin du. Bi sektoreek funtsezkoak dira eta abagune aparta eskaintzen diote Donostiari.

Imanol Lasak eskerrak eman zizkion enpresa Donostian eta Gipuzkoan kokatzearen aldeko apustuagatik, eta Javier García adierazi zuen Donostiako berrikuntza-ingurunea funtsezkoa izan zela erabaki estrategiko hori hartzeko, eta dagoeneko emaitza onak izaten ari dela.

Enpresa Berritzaile Finkatuaren saria Bunt Planet konpainiak jaso zuen. Ibilbide handiko enpresa horrek ur-galerak murrizteko software bat garatu du.

I+Garen alde egin duen etengabeko apustuari esker asko hazi da eta nazioarteko merkatuetan sartu da; halaber, Europako Batasunaren aitortzea jaso du, ahalmen berritzaile handiko enpresentzako ETE programa eskusiborako aukeratu baitute.

Marisol Garmendiak nabarmendu zuen ikuspegi aitzindaria duela munduko arazoari, berrikuntzaren aldeko apustuari, tokiko talentuari eta ingurumen-jasangarritasunari buruz. Ainhoa Lete igo zen saria hartzera eta erantzun zuen Donostia ur-teknologiaren erreferentziako hiri bihurtu nahi dutela, gure ingurunekeo puntako enpresa berrien inbertsioa eta talentua erakarriz.

Donostia INN saria DIPC zentroak jaso zuen. 1999an sortu zenetik, bere jarduera zientifikoaren bikaintasunagatik nabarmendu da eta euskal zientzia eta hiri nazioartekotzeko plataforma bihurtu da.

Eneko Goiak Donostia zientziaren eta ezagutzaren hiri bihurtzearen garrantzia eta meritua azpimarratu zituen. Bestalde, Pedro Miguel Etxenikek, eskerrak emanez, nabarmendu zuen ia milioi erdi ikertzailek Donostia izena daramaten artikuluak aipatu dituztela eta DIPC enpresari esker Donostiaren izena ohorez heldu dela mundu osora.



Ondorioak

Donostia WeekINN ekimenaren VII. edizio honen zazpi egunetan, 4.300 pertsona baino gehiagok jarraitu dituzte programaturako ekitaldiak online, WeekINN TV kanalean egindako zuzeneko bideoen bitartez edo kanal horretan dauden bideoak ondoren ikusiz.

Zenbakien arabera, Berrikuntzaren Astea ondo egokitu da pandemiak eragindako inguruabarretara eta programa osatu eta askotarikoa eskaini du, Superaldaketei aurre egiteko funtsezko erronka eta elementu handien inguruan hausnartu eta eztabaidatzeko. Hain zuzen ere, superaldaketak izan dira aurtengo edizioko gaia.

Halaber, hirian jorratzen ari diren zenbait funtsezko apustu indartu dira: berrikuntzaren aldeko apustua eta teknologia ulertzearen eta tresna modura erabiltzearen garrantzia, hiriko berehalako eta etorkizuneko erronkei erantzuteko, pertsonengatik eta pertsonentzako. Hori guztia lankidetzako ingurune batean egin da, eta oinarri horretatik jarraitu behar dugu garatzen pertsonetan, berrikuntzan eta ezagutzan oinarritutako hiri-eredu berria.

Donostia WeekINN berezi eta digitalena amaitu da, baina WeekINN TV kanalean emandako programazio guztiaz gozatzen jarrai dezakegu YouTubeko gure kanalean.

Donostia Sustapena Berrikuntzaren Astearen datorren urteko edizioa prestatzen ari da, dagoeneko. Zain gaituzue!

Laguntzaileak

Hauen babesarekin:



Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa

Eskerrik asko!

Hauen laguntzarekin:



Aquarium | Gipuzkoako Ostalaritza Elkarteak | Bengoa | Biodonostia | Ceit | Cic Biomagune | Cic Nanogune | Deusto Forotech | Donostia International Physics Center (DIPC) | Domotek | Doplay | Easo Politeknikoa | Educa Reality | Ekintza | Elhuyar | Eskibel | Donostia Zinemaldia | Fondo Formación Euskadi | Forotech | Get In | Grupo Vocento | Habic | Iametzta | Ikor | Ikusi | Irisbond | KirolDNA | Labsland | La Perla | Laia | Luana Games | Maraka | Materialen Fisika Zentroa Cfm (UPV/EHU-CSIC) | Naru Intelligence | Nazaret Fundazioa | Nuavis | Opinno | Peritus | Polymat | Real Sociedad | Selfcoaching360 | Sinnple | Skootik | St Patrick'S English School | Tecnun-Donostiako Goi Ingeniaritza Eskola | Deustuko Unibertsitatea | Upv-Ehu | Vicomtech | Zabala Innovation Consulting | Zubiri Manteo